NAHIKO

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde autonomiaduna EUSKO JAURLARITZA
Organismo Autónomo del GOBIERNO VASCO

# LEHEN HEZKUNTZAKO 1. MAILA

# 1. UNITATE DIDAKTIKOA:

# GORPUTZA, BERDINTASUNEZ HAZI

# GAI ZERRENDA



## HEZKIDETZA

- Irakaslearen gida
- Familientzat Nahiko! aurkezpena

## MATERIALA

- “Luze eta Txiki” ipuina
- “Gorputzaren altxorra” jolasa
- Ikasleen koadernoa
- Familien koadernoa

# HEZKIDETZA, BERDINTASUNERAKO HEZIKETA

**Ikasle oro, neska nahiz mutil, generoko rolik gabe: bizitzaren arlo guztietan pertsona osoak eta autonomoak.**

**Giza Eskubideetan oinarritutako harremanak.**



## BERDINTASUNA:

- Ikasle guztiek, neskek zein mutilek, norbere autonomia, pertsonen arteko tratu onak eta erabateko hiritartasuna lortzeko heziketa eduki dezaten.
- Errespetuz eta indarkeriarik gabe hazi, sentitu, ekin, ikasi, erabaki eta elkarbizi daitezen.

→ Nahiz arlo pribatuan nahiz publikoan Giza Eskubideak errespetatuz bizi eta elkarbizi daitezen.

→ Arazoak eta auziak biolentzia-eza erabiliz konpondu ditzaten.

→ Emakumeen aurkako indarkeriaren kontra egin dezaten.

# LEHEN HEZKUNTZAKO LEHENENGO ZIKLOA

## NAHIKO! 1-2 Logoa

**Desberdintasunaren semaforo gorriak sexuaren arabera.**

**Berdintasunaren semaforo berdeak denontzat.**

**HELBURUA: semaforo berde guztiak guztiontzat, semaforo gorririk gabe.**



## NIK AHAL DUT:

- Nire gorputza ezagutu, maitatu eta garatu.
- Emozio berriak eta enpatia sentitu. Emozio guztiak sentitu, kudeatu eta partekatu.
- Lehen egiten ez nituen gauza asko egin. Jakin-mina izan. Esperimentatu. Ikasi.
- Etxeko girotik atera. Harreman berriak egin. Helduen ereduak imitatu ala eredua berritu.
- Arreta, umorea, memoria, arrazonamendua eta abar garatu. Aukeratu, erabakiak hartu.
- Elkarbizitzako arauak eta balioak ikasi eta erabili. Lagunartekoa eta gizartea eraiki.



# LEHEN HEZKUNTZAKO
# 1. MAILA

| UNITATEAK | JOLASAK | IPUINAK |
|---|---|---|
| 1. Gorputza, haztea | Gorputzaren altxorra | Luze eta Txiki |
| 2. Sentimenduak, sentitzea | Sentimenduen altxorra | Bero eta Hotz |
| 3. Autonomia, ekitea | Kamara... eta ekin! | Indar eta Atsegin |

## 1.UD, GORPUTZA:



- Aurkikuntza, garapen eta ikasketen arlo nagusia.
- Sexua, lateralitatea, koordinazioa, mugimendu jolasak, psikomotrizitate fina...
- Ezagutu, onartu, garatu eta zaindu.
- “NIK AHAL DUT!”.

# IRAKASLEEN FORMAKUNTZA

## IRAKASLEAREN GIDA:

1. LH-ko lehen zikloa: hazi eta ikasi.

2. Gorputza: nik ahal dut; zuk, mutil, ahal duzu; zuk, neska, ahal duzu… ala ez?

3. Helburua: guk, neskek eta mutilek, ahal dugu; neskek eta mutilek ahal dute.

4. Materialak eta ekintzak.

5. “Luze eta Txiki” ipuina.

6. “Gorputzaren altxorra” jolasa.

GORPUTZA, BERDINTASUNEZ HAZI

1 UNITATE DIDAKTIKOA

IRAKASLEAREN GIDA 1

**Irakasle agurgarria:**

Ongietorri Lehen Hezkuntzako lehenengo eta bigarren mailako **EMAKUNDEren NAHIKO!** Programara. Egitasmo hau emakume eta gizonen arteko **berdintasunerako hezkuntza programa** da, ikasle neska eta ikasle mutilen arteko berdintasunerako. Berdintasuna eskubideetan, aukeretan, tratatzeko eran, arduretan… Berdintasuna, gure ikasle neskak eta ikasle mutilak Giza Eskubideen arabera hazteko, handitzeko, sentitzeko, ekiteko, ikasteko, erabakitzeko eta elkarrekin bizitzeko.

Hezkidetza programa honen azken helburua, emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta sentsibilizazioa da. Indarkeria hau gizon eta emakumeen ezberdintasun estrukturalaren muturreko seinale eta ondorioa izanik, programa gure ikasleak, neskak eta mutilak, berdintasunerako, errespeturako eta biolentzia-ezarako hazi eta hezitzen saiatzen da. Bai neskek eta bai mutilek elkar ulertu dezaten eta beraien identitateak eta beraien arteko erlazioak sexu bakoitzari generoak ezarritako aurreiritzi eta mugarik gabe eraiki ditzaten.

Egun, emakumeek pairatzen dituzten tratu txarrak eta injustizia soilik berdintasunak, Giza Eskubideen azken oinarria denak, prebenitu eta sahiestu ditzake. Soilik berdintasunerako hezitzen baditugu ahal izango dute gure ikasleek askatasunean hazi eta dituzten gaitasun guztiak garatu. Soilik berdintasunerako, errespeturako eta biolentzia-ezarako hezituz lortu dezakete neskek eta mutilek autonomia pertsonala, pertsonen arteko tratu onak eta erabateko hiritargorako heziketa integrala.

**Eskerrik asko zure laguntzarengatik!**

# GORPUTZA, BERDINTASUNEZ HAZI



## "AHAL DUT": NESKEK ETA MUTILEK BERDIN

- Ahalmen eta gaitasun berberak
- Aukera eta baldintza berdinetan
- Eduki eta itxaropen berberekin
- Gizartearen motibazio eta onarpen berberarekin

- Semaforo gorri berberekin? Semaforo berde berberekin?
- Kholberg: 5-8 urte bitartean, neskek bere gorputza onena bezala ikusteari uzten diote. Sexu biek mutilen gorputzari ematen diote balio gehiago.
- Neska eta mutilentzat semaforo berde berberak.
- Semaforo gorriak aurkitu eta itzali. Semaforo berdeak aurkitu eta guztientzat piztu.

# BEHAKETA: GORPUTZAK, ONARPENA ETA GARAPENA




## ERREALITATEA: NESKEN GUTXIESPENA

- Motibazio, itxaropen, exijentzia eta balio txikiagoak.
- Ezaugarri, ahalmen, ikasketa eta emaitzetan.

→ Autoestimu txikiagoa.

→ Beraien gustu, nahi, proiektu, ekintzen, lorpenen… gutxiespena.

→ Mutilekiko miresmen, menpekotasun eta morrontza handiagoa.




- Norbere identitate eta bizimoduan: nola ikusten dute bere gorputza, bere burua?
- Rola, estatusa eta etxeko, eskolako, gizarteko, laneko… harremanetan: non ikusten dute, zer egiten, bere gorputza, bere burua?

# HELBURUA: SEMAFORO BERDEAK GUZTIONTZAT

## GORPUTZ GUZTIEI ETA PERTSONA GUZTIEI BALIOA EMAN:

- Norberak bere gorputza maitatu: ezagutu, onartu, zaindu eta garatu.
- Gorputz batzuen itxura eta ahalmenak eredu bakarra ez bilakatu.
- Gorputz, ahalmen eta ezaugarri guztiei balioa eman.
- Gorputza garatzeko trebatze eta emaitza guztiei balioa eman.





→ **Autoestimu handiagoa neskeengan.**

→ **Errespetu handiagoa mutilengan.**

→ **Gorputzari dagokionez, neska eta mutilen ikasketa eta garapen integral eta orekatua.**

# HIRUHILEKOAREN ANTOLAKETA



Unitate didaktikoaren materiala hiruhilekoan zehar erabili

## PAUSOAK:

→ **Hasieran:**

- Familiei Nahiko! programaren aurkezpena.

→ **Asteroko saioetan ikasleekin:**

- "Luze eta Txiki" ipuina landu.
- "Gorputzaren altxorra" jolasa ezagutu, landu eta jolastu.
- Ikasleen koadernoa bete, ipuina eta jolasa barneratzeko. Zatika egiten joan daiteke.

→ **Eskolan landu ondoren:**

- Familien koadernoa etxera bidali etxekoekin landu, hausnartu eta partekatzeko. Zatika egiten joan daiteke.
- Ez da "etxeko-lana", ez da eskolan "zuzenduko". Erabileraren eta etxean lortutako giroaren jarraipena egingo da.

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

# FAMILIEI AURKEZPENA



## INFORMAZIOA, SENTSIBILIZAZIOA ETA ELKARLANA:

- "Nahiko! LH-1 familiak" pdf-ko aurkezpen lagungarria erabil daiteke.
- Ikasleen lana azaldu: unitate didaktikoaren edukiak, helburuak eta materialak (ipuina, jolasak, kantak...).
- Hiruhileko familien koadernoa: helburuak. Lantzeko irizpideak. Ariketa motak eta adibideak. Eskolan egingo den jarraipena.

# "BERDINLAND"





## BAZEN BEHIN...

- Emakume eta gizonen berdintasunaren ikuspegitik eredu positibo eta anitzak.
- Gure gizartean ohiko egoera eta pertsonai estereotipatuen alternatiba berdinzaleak.
- Ikasleen adineko neska-mutil lagun taldea eta beraien eguneroko bizipenak.
- Ipuin bakoitzean kanta bat eta taldeko neska eta mutil baten protagonismoa eta lidergoa.

tratu txarrak NAHIKO! 1-2 berdintasuna maltrato igualdad
EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

# "LUZE ETA TXIKI" IPUINA



## GORPUTZ EZBERDINAK:

- Gorputzen pertzepzio eredua eta elkarren arteko harreman eredua.
- Bakoitza pozik dago bere gorputzarekin.
- Bere aukera, zailtasun eta ahalmenak onartu, errespetatu eta baloratzen dituzte. Eta besteenak ere bai.
- Norberaren zailtasun eta abantailak → taldearentzat, gizartearentzat, abantaila.



# IPUINA LANDU



Egunerokotasunarekin lotu.
Hausnartu, eztabaidatu.
Ipuina jarraitu, aldatu...

## JARDUERAK:

- Ipuina ikusi eta entzun (bideo-ipuina) edota irudiak eta testuak ikusi eta irakurri (pdf artxiboa).
- Zer gustatu, zer ez, zerk harritu...? Zergatik?
- Gure gelan, gure herrian, horrelako neskak daude? Zergatik? Nolakoak dira? Eta mutilak? Zergatik? Nolakoak dira?
- Zergatik jokatzen du horrela pertsonaiak? Neska delako? Mutila delako? Bere ogibidearengatik? Bere nortasunarengatik?
- Zer nahiko genuke ikasi, entrenatu, trebatu? Zergatik? Ahal dugu egin? Zergatik?

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

# ONLINE JOLASAK

## JOLASTU, BIZIARAZI, AZTERTU, HAUSNARTU:

- Lan-talderako materialak.
- Eguneroko egoerak, sentsazioak, bizipenak, sentipenak, harremanak... biziarazi eta gogoratu.
- Galdetu, aztertu, hausnartu, ulertu, eztabaidatu, adostu, iradoki, aldatu...
- Ondorioak, alternatibak, aldaketak...




## JOLAS BAKOITZAK 3 ATAL:

- Hasierako tutoriala (azalpena)
- JOLASA
- Bukaerako laburpena (hausnarketa)

# HASIERAKO TUTORIALA




## ERABILERA:

- Jolasa ezagutzeko.
- Non dago tutoriala?
  - Lehenengo zikloko jolasetan (LH1 eta LH2) irakasleari alta ematerakoan azaltzen da.
  - LH3tik aurrera berriz, ikasle bezala alta ematerakoan azaltzen da.
- Lehen partidetan talde osoarekin erabil daiteke eta gero taldeka edo banaka.
- Tutoriala saltatzeko aukera dago botoi gorriari emanez. Adibidez, jolastu den lehen partidetan jadanik tutoriala egin bada eta jolasa jadanik ondo ezagutzen denean, ez da beharrezkoa berriro egitea.




# BUKAERAKO LABURPENA

## ERABILERA:

- Partidaren emaitzak aztertzeko eta kontzeptuak finkatzeko.
- Non dago laburpena?
  - Jokalari bakoitzari azaltzen zaio partida amaitzerakoan.
- Lehen jokaldietan talde osoarekin erabil daiteke eta gero taldeka edo banaka.
- Laburpeneko galdera batzuk jolastutako partidaren araberakoak dira.

# ONLINE JOLASEKIN JARDUERAK










## 1.- JOLASTU AURRETIK, JOLASA EZAGUTU:

- Kartak eta fitxak ezagutu, marrazkien eta hitzen esanahia argitu...
- Irizpide anitzak erabiliz fitxak antolatu eta sailkatu. Pertsonaien ezaugarri komunak edota ezberdinak identifikatu.
- Kartak kopiatu eta hormairudiak egin elkarren artean erlazionatuz, osatzen dituzten testu edo irudiak gehituz. Egungo albisteekin edota gertaerekin erlazionatu.
- Nork bere burua edota beste pertsonak errespetuz ezagutu eta deskribatzeko hitzen zerrenda osatu. Erabiltzen al ditugu hitz batzuk neskentzat eta beste batzuk mutilentzat? Zergatik?
- Hitz berrien hiztegi txikia egin. Hiztegia irudi, adibide, egoera edo esaldiekin lotu...
- Karta edota fitxa berriak sortu.

## 2.- JOLASTU ONDOREN, HAUSNARTU:

- Egindakoa aztertu, zalantzak argitu...
- Jolas amaierako online laburpena bete.
- Ezkerreko laukiko ariketak egin.
- Ikasleen koadernoko ariketak egin.

# “GORPUTZAREN ALTXORRA” JOLASA

## 4 KARTA-SORTA EZBERDIN:

- Karta-sorta bakoitzak kolore bat.

- Karta-sorta bakoitzak 40 karta.

- 5 karta mota ezberdin.

- 1-8 zenbakitutako zortzi karta mota bakoitzeko.












EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

# BOST KARTA MOTA












## A) MARRAZKIAK:

- Pertsonaiak: 4 neska eta 4 mutil
- Gorputzaren funtzioak (salto egin, putz egin, seinalatu...)
- Gorputzaren atalak (ahoa, burmuina, lepoa...)
- Ekintzak (jolastu, ikasi, erosketak egin, dantzatu...)

## B) HITZAK:

- Ahalmenak (adimena...)

* Aukera dago hitzak dituzten kartekin edo hauek gabe jolasteko.

# JOLAS ARAUAK 1



- **Pertsonaia batekin hasi behar da.**



- **Inguruan beste karta motak jarri behar dira, baina karta mota errepikatu gabe.**









* Online jolasaren tutorialean zehatz-mehatz azalduta.

# JOLAS ARAUAK 2

**Adibidea**





# IKASLEEN KOADERNOA

## Landutako ipuin eta jolasei buruzko ariketak


GORPUTZA, BERDINTASUNEZ HAZI

1 UNITATE DIDAKTIKO

IZENA:

IKASLEAREN KOADERNOA 1

Lagun maitea:

Ongi etorri EMAKUNDEren NAHIKO! programara. Programa honek neska eta mutilen arteko berdintasuna lortu nahi du.

Berdintasuna semaforo berdea da, bide librea neska eta mutilentzat. Berdintasuna, errespetua eta bolentzi-eza da.

Berdintasun-eza semaforo gorria da, bide itxiak mutil eta neskentzat. Berdintasun-eza, tratu txarrak eta bolentzia da.

Semaforo horiek denon artean erabaki eta pizten ditugu, askotan konturatu gabe. NAHIKO! programak berdintasunaren semaforo berdea piztu nahi du: berdintasuna handitzeko, sentitzeko, egiteko, ikasteko, erabakitzeko eta elkarrekin ondo bizitzeko.

Semaforo berdea piztu nahi al duzu? Zatoz gurekin! Ondo pasa!


GORPUTZA-HAZI 1. UNITATE DIDAKTIKOA IKASLEAREN KOADERNOA

1 NESKAK ETA MUTILA, BERDINAK?

1 Inguratu gure gizartean jende gehienak bereziki neskentzat egokitzat jotzen dituen hitzak (marrazkietan, liburuetan, pelikuletan...).

indarra, beldurra, adimena, kemena, alaitasuna, kontzentrazioa, sormena, osasuna, trebetasuna, intuizioa, lasaitasuna, abiadura

2 Lotu hitz bakoitza Luzerekin, zure ustez, hitza bereziki neskeei badagokie eta Txikirekin hitza bereziki mutilei badagokie.


GORPUTZA-HAZI 1. UNITATE DIDAKTIKOA IKASLEAREN KOADERNOA

3 Inguratu soilik neskek eta soilik mutilek dituzten gorputz atalak.

4 Inguratu bai neskek eta bai mutilek egin ditzaketen gauzak.


GORPUTZA-HAZI 1. UNITATE DIDAKTIKOA IKASLEAREN KOADERNOA

2 NIK AHAL DUT, NIK EGIN DEZAKET

1 Inguratu zuk egin ditzakezun gauzak. Bada egin ezin duzunik? Zergatik? Neska zarelako? Mutila zarelako? Ikas dezakezu egiten?

2 Bete hutsuneak hitz hauek erabiliz. berdin ta kideak, ordea, izatea, gaztea

Mehea ta luzea da neska ...

Txikia eta arina mutila ...

zein ona bi ikuspuntu beti ...

biok baldin bagara ...

## HITZ EGIN, HAUSNARTU, BARNERATU, LABURTU:

- Hitzak eta marrazkiak markatu (“X” idatzi...).
- Hitzak marrazkiekin lotu (zenbaki bera idatzi).
- Kantaren esaldien hutsuneetan hitzak idatzi.

**PDF betegarriak**

# FAMILIEN KOADERNOA

## Landutako ipuin eta jolasei buruzko ariketak


GORPUTZA, BERDINTASUNEZ HAZI
1 UNITATE DIDAKTIKO
IZENA:
FAMILIAREN KOADERNOA 1
1 Zure familiaren laguntzarekin osatu esaldi hauek beheko hitzak erabiliz.
semaforo berdea da. Neska eta mutilentzat bide librea da. Errespetua eta biolentzi-eza da.
Berdintasun-eza semaforo da. Mutil eta neskeentzat bide itxiak dira. Tratu txarrak eta biolentzia da.
Semaforo horiek denon artean erabaki eta pizten ditugu, askotan konturatu gabe. NAHIKO! programak berdintasunaren piztu nahi du: berdintasuna hazteko, sentitzeko, egiteko, ikasteko, erabakitzeko eta elkarrekin ondo bizitzeko.
Semaforo berdea piztu nahi al duzue? gurekin! Ondo pasa!
gorria berdintasuna ekin berdea


2 Zenbakitu marrazkiak Luze eta Txikiren ipuinaren ordenaren arabera.
3 Irudiak jarraituz, kontatu etxekoei Luze eta Txikiren ipuina.


4 Inguratu, zure familiaren laguntzarekin, ipuinaren arabera Luzeri dagozkion hitzak kolore batekin eta Txikiri dagozkionak beste batekin.
indarra alaitasuna altuera kemena lidergoa
arintasuna trebetasuna sormena ardura
adimena oreka baikortasuna malgutasuna
Hitz berberak dira Luze eta Txikirentzat?
Zergatik?
Neska eta mutila direlako?
Bakoitza den bezalakoa delako?
Bakoitzak horrela ikasi duelako?
5 Erakutsi etxekoei Luze eta Txikiren kanta.
Mehea ta luzea
da neska gaztea,
txikia eta arina
mutila ordea,
zein ona bi ikuspuntu
beti izatea,
biok baldin bagara
berdin ta kideak. (bis)


6 Inguratu, zure familiaren laguntzarekin, handitzen zarenean aldatuko zaizkizun gorputz atalak.
Inguratu, zure familiaren laguntzarekin, handitzen zarenean, nahi baduzu ikasi eta egin ahal izango dituzun gauzak.
Ezingo dituzu batzuk ikasi eta egin? Zergatik? Gustatzen ez zaizkizulako? Zergatik ez zaizkizu gustatzen? Neska zarelako? Mutila zarelako?
Gogoratu
Neskek eta mutilek oso alde gutxi dute euren sexuaren arabera.
Gorputzaren ia atal eta funtzio guztiak berdin-berdinak dira.
Gauza berbera egin dezakete berdin erakutsi eta saiatuz gero.
Berdintasunez haztea neska eta mutil bakoitzaren ezaugarriak lantzea da, sexuaren araberako semaforo gorririk gabe.

**PDF betegarriak**

## HITZ EGIN, HAUSNARTU, ADOSTU:

- Testuaren esaldien hutsuneetan hitzak idatzi.
- Ipuinaren marrazkiak zenbakitu. Ipuina kontatu. Kanta erakutsi.
- Hitzak eta marrazkiak markatu (“X” idatzi, zenbaki bera jarri…).

# FAMILIEN KOADERNOAREN ERABILERA







## PAUSOAK:

1. Familiei Nahiko! aurkezteko bileran koadernoak eta beren erabilera azaldu.
2. Eskolan landu ondoren, familiei koadernoak bidali: USBan, e-mailez, eskolako web-ean ala plataforman zintzilikatu, inprimatuta banatu...
3. Koadernoa erabili etxean elkarrekin hitz egin, partekatu eta hausnartzeko.

## GARRANTZITSUA: TOPAGUNEA DA ETA EZ “EGINBEHARRA”

→ Eskolako lanetaz hitz egiteko eta hausnartzeko aukera.
→ Elkar ezagutzeko eta harremanak sendotzeko aukera.
→ Esperientziak, sentimenduak, balioak, erabakiak... BIZITZA partekatzeko aukera.

→ Ez dira erantzun bakarra eta egiteko modu bakarra duten ariketak.
→ Ez da beharrezkoa dena idaztea, dena erantzutea eskolara bidaltzeko.
→ Helburua, familian erabiltzea da, eskolaren laguntza eta jarraipenarekin.

# ONLINE MATERIALA ERABILTZEKO INFORMAZIO GEHIAGO

## “ONLINE JARRAIBIDEAK” pdf-a

- Irakasleak materiala eta jolasak ezagutzeko pausoak.
- Ikasleek materiala eta jolasak ezagutzeko pausoak.
- Jolasak erabiltzeko pausoak.
- Hausnarketa: jolasaren laburpena eta koadernoak nola erabili.
- Online jolasteko ohar teknikoak.
- Irakaslea eta ikasleak online jolasetan alta emateko pausoak.
- Nabigatzailean leiho independienteak nola sortu.


NON DAGO MATERIALA?
http://www.emakunde.euskadi.eus/nahikoeu/-/in

- **Sarrera librea**
  Nahiko! programako material eta jolas guztiak Emaku… inolako pasahitzik gabe erabiltzeko.
- **Zikloka antolatuta dago informazioa**
  LHko lehenengo zikloa, bigarren zikloa eta hirugarre…
- **Ziklo bakoitzean 6 Unitate Didaktiko**
  Unitate Didaktiko baten adibidea.

1 UD: Gorputza. Berdintasunez Hazi.

- Irakasleen gida (PDF)
- Ikasleen koadernoa (PDF)
- Familiaren koadernoa (PDF)
- Abestia (ZIP, 4.1 MB)

Ipuina:

- Luze eta Txiki (PDF)
- Luze eta Txiki (AVI, 30 MB)
- Luze eta Txiki (WMV, 22 MB)

Jolasa: Gorputzaren altxorra. Konektibitatea baieztatu

- ONLINE BERTSIOA
- Deskargatzeko bertsioa: Karta-sorta 1 (PDF) | Karta-sorta 2 (PDF) | Karta-sorta 3 (PDF) | Karta-sorta 4 (PDF)

1


NAHIKO! PROGRAMA JARRAIBIDEAK

E. ERANSKINA: INTERNETEN BIDEZ ONLINE JOLASTEKO JOLASAK
E2. IRAKASLEA ETA IKASLEAK ALTA EMATEKO PAUSUAK

16. JOLASTEKO ERA AUKERATU
Ikasleen adina eta kopurua, ordenagailu kopurua edo jolasarekin aritzen diren zenbatgarren aldia den kontuan harturik, **jolasteko era moldatu daiteke** (ikus 6.atala, 5.orrialdean):

a) Arbela digitala edo proiektorearekin. Ahal bada, 2 ordenagailurekin. Bakarra badago, garrantzitsua: leiho independienteak zabaldu behar dira (ikus E3 eranskina).
b) Taldeka ordenagailu bakoitzean. Binaka, adibidez.
c) Banaka ordenagailu bakoitzean.
d) Jolas talde eta partida ugari. Halakoetan, lehenengo talde bat osatu eta jolasten hasi. Ondoren, 2.taldea sortu eta jolasten hasi. Segi horrela, behar adina talde sortuz.

OHARRA: Jolasak, **gehienez 12/14 jokalari** jolasteko prestatuta daude. Hau da, pantailan aurpegitxo baten bidez 12/14 jokalari jaso eta bere txanda noiz den adierazteko.

17. IRAKASLE ETA IKASLEAK ALTA EMATEKO PAUSOAK
1- **Hizkuntza** jokalari bakoitzak aukera dezake, eta jokaldi berean batzuk hizkuntza batean eta besteak beste batean aritzeko aukera ematen du.

2- Jolas bakoitzean **orden honetan** eman behar dira altan irakaslea eta ikasleak. **Kontuan izan ezin direla espazioak erabili, soilik hizkiak eta zenbakiak onartzen ditu.**

3- **Irakaslearen alta** datu hauek betez egiten da:

**Kontuan izan guztiek berdin-berdin idatzi beharko duzuela ikastetxearen izena.**

10

NAHIKO

EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde autonomiaduna

EUSKO JAURLARITZA

Organismo Autónomo del

GOBIERNO VASCO